

+ Anaitasuna

VI URTEA - N.º 58

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Martia (3) 1959

MONDRAGOEKO ANDRA BAT LURDESEN OSATU

Lurdesko urtea amaitu da. Eun urte bete dira Ama Birjiñea an agertu zantetik. eta eungarren urte ori ospatuteko, Jaungoikoak daki zenbat jente joan dan ara bazter guztietatik. Izan be, Lurdesen jazoten direnak, ez tira beste inun ikusten. Zenbat gaxo (gorputzako gaxoak; arimakoak orain ez titut aitatu gura), zenbat gaxo, gaxik txarrenakin jota egozanak, ez ditu an osatu Ama Birjiñearen esku andiak! Esan leike Ama Birjiñeak nai izan dabela leku ori paratu gaurko munduaren erdian, kristiñau fedean kiikolo dabillen gure aro oneri siñismenaren euskarri bat emotearren.

Orain oraintsu emakume euskaldun bati Lurdesen gertatu yakon osatutze arrigarria gure dot kontau, edo obeto esateko, berak, bere Mondragoiko euskeran niri kontau deustanlez, emen ipiñi. Osatutze ori milagrua izan dan ala ez erabagitea, ori ezta nire arazoa, Eleiza Amarena baiño; nik pasadizua kontatzeaz naikoa dot.

Emakume oneri *Teodora Mondragón* yako izena, eta Mondragoeko errian bizi da, ganera. Oso gaxorik egoan. *Mal de Pot* izena daben gax ori eukon. Urte askotan egon zan ezetarako be gauza etzala, beti miñakin. Baiña berak esango deusku ori obetoen:

«Iru bider operau ninduen, bi azur kendu eustien mokorretik ta bizkarrian ipiñi, ta azur-raspaua be birritan egin eustien. Bizkar daniel miña izaten neban kokoteraiño, eta burua ezin bueltau alde batera ta bestera; kokotea gogortuta letxe neukan. Oiñ-azpitan be koskor batzuk neukan, ta ezin ibili. Koskorrak orain be or dagoz, baiña miñik eztaukat. Oso nekez ibilten nintzan. ta beti takoi altuekin; bestela ezin. Bastoia-kin ta beste bati oratuta ibilli bear izaten neban. Medikua esan eustien beste injerto bat ipiñi bear eustiela, eta orduan pentsau neban lenengo Lurdesera joatea.»

1958-ko Maiatzaren 2-an joan zan Mon-

dragoitik Lurdesera peragrinaziño bat. Iru autobus. Peregrinaziño onetan joan zan gure Teodora be, bere alaba ta beste lagun battegaz. Biak joan zirean bere zain. Oso biaje txarra egin eban aruzkoan. Urrango egunean, goizeko amabietan, sartu zan bañueta-
ra, piszinara. Zapatua zan alan be, Gurutze Santuaren jaiéguna.

«Amabiyak izango zirean barrura sartu nintzaneko. Enfermerak erantzi ninduen. An barruan Ama Birjiñearen irudi bat dago, eta arexeri mun egiterakoan emozioño andi bat sentidu neban, eta negarrari emon neutsan. Berbarik pe ezin egin. Negargurea, besterik ez neban. Osatu nintzanik pe konturatu ez. Urten nebanean, ez neukan miñik; jantzi, ibili ta dana egiten neban. Alabea ta laguna egozen an, eta arek ondo konturau zirean eskua ta ankia ta dana eragiten ne-bala. Mondragoeko jentia be danak konturau zirean. Bueltan neure ankaz ta oiñez ta besteen moduan etorri nintzan. Eta arrezkero oso ondo nago.» «Peregrinaziñoa Mondragoera eldu zanean, *Te Deum*-a izan genduan San Frantziskoren eleizean. Eta datorren Maiatzeko iruan be mezea enkar-gauta daukat. Ganera, aurtengo agostuan dira 25 urte ezkondu giñala, eta asmoa dogu gizona ta biok Lurdesera joateko, eskerrak emonaz.»

Eta bere istoria kontatzeari azkena emotean, onako berba onetik esan eustazan: «Mondragoiko jentia esaten dost askotan: Olako milagrua ta zelan eztabe zabalduten geiago?»

Mondragoen mundu guztiak ezagututen dau gure Teodora. Antxe bizi da orain be, bere gizonagaz ta seme-alabakaz. Pasadizu onen garbitasun geiago jakin gura dabenak, berari itandutea baiño eztauko. Calle Magdalena, número 20, 2.º, Mondragón (Guipúzcoa): antxe bizi da guztiz osatuta, len ezetarako etan emakume au.

Villasante

Ars'ko abade santua il zanetik eun urte

Geientxuok ezagututen ete dozue Frantzian izan dan santurik aundiena? Frantzia, «Santu erria» deitu izan daroa. Eta bertako santu guztien artean, Ars'ko abade santua dozu gorengoena, ziur-ziur. Ars'ko abadearen izena Jean Marie Vianney da. Ecully deritxon eritxoan jaio zan. Bere gurasoak baserriar zintok izan ziran. Sei nebarreba izan ziran: Cataline, zarrena, ezkondata beingoan il zan berau; Jean Marie, bost urtegaz il zana; François, etxeko jaun izango zana; Jean Marie, gure santua; Margarete eta beste bigarren François bat.

Jean Marie 1786'ko maiatzaren 8'an jaio zan, eta 1859'ko agostuaren 4'an il zan. Aurten betetan dira eun urte Trugarren Ordenako abade aundi au il zanetik. Gizaldi bat dala, Ars'ko parroki txikian il zan Frantzian izan dan santurik aundiena!

Jean-Mariek solo-bierretan igaro zitun mutil gait: ian arterañoeko urteak. Eskola aundirik ezeukan. Dotriñan bai oster, dotriñan iñor baiño aurrerago egoan. Baiña batez be biotza eukan zabaia ta ona Jean-Mariek. Eta biotz zuzenak argi entzun oi danz Jainkoaren barbarik ixilenak be. Jean-Mariek 19 urte zitula entzun eban bere ordeko izatera deituten eban Jainkoaren abots biguna. 1789 ko erreboluziñoan abade a:ko il ebe:an Frantzi osoan. Erri asko abade bar:ko gelditu ziran, arimen artzain barrik. Jean-Mariek, Jainkoaren esana jarraituz, abade egitea erabaki eban, arimak zeru bidean laguntzearen. Eskolatan baiño gar: ebagiten ta matzondoak jorratzen aurrertuagoa egoan, baiña ikasi bear ba:eban, aretar:ko be borondate aundia eukan.

Latiñak ikastea kosta iakon ba, kontxo! Bi bider bialdu eban seminariotik aren buru gogorrean ezin eik:ala latiñ:ik sartu-ta. Baiña, bein da barrin: seminariora biurtutea lortu eban. Ecully'ko parroko jauna zan Bailey'ren bidez. Bailey'k ondo ezagututen eban Jean-Marie'ren barr:ko sugar gorria, bere arimenganako maitasun bizia. Azkenik

igaro zitun latiñak, filosofiak eta teologiak. 1815'an mezadun egin zan, 26 urte zitula.

Abade-barria, bere adiskide aundia zan Ecully ko Balley jaunaren laguntzaille izentatu eban. Iru urte geroago, 1818'an ARS baserri:ko abade egin eban. Antxe, bere lagun Bailey'ren ondoan asitako, santutasun bidean gailurreraino igo zan. Jean-Marie Vianney'k ikaragarriko penitentziak egiten zitun bere Ars'tarren alde. Eta beingoan Ars'en jai egunak gordetan asi ziran, lengo birago zikiñak etziran entzuten, eta etzan Moskortirik tabernetan... Ars eta inguruetan zabaldu zan bere santutasunaren usain gozoa; edonun egiten zitun mirari ederrak; eta albo errietatik asko ioiazan Ars'era. Baiña mirariak ez eban arrotu Ars'ko abadea. Berak egiten zitunik be ez eban sinistuten. Beti umil, beti apal, bere gorputza zigortuz... Bere gelako ormak odolez txipristinduta eukazan.

Berrogei urtetan Ars'ko abade izan zan. Berrogei urtetan pobre ta umiltasunez, bere ejenplu ederrakaz arimari zeru bidea erakusten, zeru bidean laguntzen. Asko jakiña izan ez arren, santutasunez gaitzeka.

Aita San Frant:ikoren Trugarren Ordenako seme zintzo-zintzoa izan zan. Benetar maite izan eban bere aita San Frantziska, penitent:i bidean jarraituz.

Aurten gizaldi bat ARS'ko abade santua il zala. Oraindik bere santutasun lurrunak ba-diran, zerutik lurrera, hurretik zerura gizonen alde...

Jen Kepa

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaino)

Aita Imanol Berriatuak egiña

Bigarren ediziñoa

Foilletu baktotxa: 3 peseta -- Ogeitik gora 2,50

SALGAI:

Libreria Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

Uri kosmopolita? Mikrokosmos?

Zein ete litzake ezizenik egokiena itxasoan navegetan dabilen transatlantiko batentzat? *Uri kosmopolita? Mikrokosmos?* Biak egoki, baiña azkenengo au obeto, nire ustez, *Gizona*-ri ipiñi ez baetsen lenagotik.

Ni, emen, batera ta bestera naroan MONTSERRAT onetan, Europa ta Amerika bitartean, biderdi inguru noala, onetariko pentsamentu batzueri leku emoten asi nintzan.

Bein ontzi bat, portu batean lokarriak akatuta, beste batera musturra zuzentzen dauanean, *mundu txiker*, baiña *oso* baten antza apur bat artzen dauala ezin leiteke ukatu. *Mundu osoa*, ez emen barruan ezer falta ez daleko. Bai dankagunagaz kontentu izan bear dogulako.

Gure lurbira onetan bizi gareanok ezin esan biar edo etzi gure umieak zer ikusteko dagozan. Baiña, oindinokarren beintzat, ez daukagu modurik Igetargira edo Martera joateko emen falta diran gauzen billa. Dankagunagaz kontentu izateko, ez genduke aaztu bear San Frantzi ko Saleskoaren esakunea:

Aimer peu des choses, et les aimer peu.

Gauza gitxi gura izan, eta eurak-bere gitxi gura izan.

Beti be au *kristiñauti*ago nire Bermeotar-txu askoren eta Euskalduntxu batzuen baiño:

Dagoanean bombon, ez dagoanean ogon.

Baiña au, filosofia merke au, itxi ta, MONTSERRAT-en barruan sartu gura zaituet artikulu onetan, emen zelako bizimodua dagoagun ikusi daizuen.

Eta lenen lenen aipatu bear dana

KAPITANA

Berau da emengo errege. Zerbait agindu bear danean, berbatxu bat, basterik ez, dauko. Bere agindua *egin egin* bear da. Menpean eztabaida bat sortzen danean, azkenengo berbea bere ezpanetan dago.

Ontzia, agaitik edo onegaitik, ezbear ba-

tean, galtzeko zorian jarriko baiitz, salvetako itxaropen brintza bat dagoan artean, al dauan guztia egin bearko dau galdu ez daitean.

Emen barruan entzuna dot MONTSERRAT, bere 14 urteakin eta 9.000 tonelakaz, 200 milloi peseta baiño geiago balio dituala dirutan. Baiña ontzia ez da ontzia bakarrik. Emen tresna asko dagoz, eta, batez-bere, bilizta asko. Au-bere barruan esan denste: Gentea larregi estatu barik, MONTSERRAT-en 800 bat lagun sartu leitekezala. Baiña zer dira munduko milloi guztiak arima baten aldean? Emendik atara zelako zerikusia dan kapitan batena ainbeste bizitza bere eskuetan dituaia, guztien guraso bakarra bera bailitzan. Orregaitik, *itzas legea* da ezbear baten geiago ezinda, barkua bertan bera larga bear danean, besteak salvetan alegin guztia kapitanak egitea, ta beste guztiak salvau direala jakinda gero, orduan, lenago ez, salvauko dau bere burua.

Ain pixu astuna erokatko laguntzailleak bear eta ez gitxi. Ontziko jerarkian kapitanaren urrengo dator

KAPILLAUA

Beronen kontura dago Jainkoagazko, Elizeaga:ko ta arimen onerako dau zerikusi guztia. Beronek artu bear ditu meza santua ze orduetan esan, sakramentuak zelan emon, kultu katolikuari yagokozan gora-beera guztietan ondo ibilteko asmoak. Bere programa egin bear dau, kapitanari erakusteko. Ta bein onek ontzat emon ezkerro —eta emon bear deutso, beste bide oneko interes batzuren kontra ez danean— orduan bera da nagosi erleginoko gauza guztietan.

Ez dira gitxi ta txikiak kapillau batek Sede Santua-gandik —esateaz lez, Aita Santuagandik— artuta daukozan eskubideak. Beste askoren artean, Domeka Jaiegunetan meza bi ta iru emotea, arimen onerako danean; batzu batzutan Batecko ta Konfirmazinoko sakramentuak emoteko bere bai, azken orduetakoak zetan esan bez.

MONTSERRAT-en, alan bearrez, ez daukagu kapillarrik. Alanda guztiz-bere saloi baten altara polit bat daukagu Karmengo

Ama Virgineagaz, eta gauza guztiak polito egiten doguz. Gura dauanak badauko auke-rea mezea entzun, konfesa ta komulga ta beste gauza guztiak ondo egiteko. Errosario santua ez dogu izten inoiz arratsaldeko lau-retan.


MAKINEA

Ontzian parterik printzipalenetakoa da makiñea. Ikustekoa da, ez esatekoa, itxas-ontzi baten makiñea. Zelakoa sutegia, zelakoak vapore galdarak, eletrizidadearen dinamoak, eliza ta bere ardatza, ta beste txisme guztiak, bai kuberta ga-nekoak, bai azpikoak. Kontu egizue erri

pratikak egiten dabiltzanak. Guztira maki-nako langilleak ogetabost gizon. Tropikoe-tan eta uda partean 45-50 graduko beroaz lan egiten dabe. Neguan eta Europa aldetik 30 gradukoaz baiño beerrago gitxitan. Eurena dala, diñoste, barruan bearrrik gogorra ta neketsuena.

KUBERTA GANEA

Nire mutil (bardingo) sasoiari itxasontzi baten olakaz josiriko sala ganeari *kuberta* (*kubertie*) esaten eutsen Bermeon. Barku andi baten kuberta ganeko ofizialak eta bearr-giñak asko dira, ta bearr-bere bai. Kubertan zubia da lenen aintzat artu bearr dogun



«Montserrat» transatlantikoa

azitxu baten zainbat makina bearr direan gizonen bizitzea ondo eroaten laguntzeko. Janaria, argia, jantzi garbia, ur otza ta be-roa... Ori ta geiago emen, uri kosmopolita onetan, mekanikaz egiten da. Eta orretarako bearr dan indar guztiaren iturria makiñan dago. Esango deusut, irakurle, barruan zen-bat gizon dagozan makiñeari kargu egiteko. Lenengo makinista bat. Bigarren makinista bat. Irugarren bi. Mekanikuak lau. Eletri-zistak lau. Grasa emoilleak iru. Sutegi yago-leak iru. Gasoil emoilleak bi. Iturri ardura-duna bat. Pafiñol arduraduna bat. Ikasleak bi. Oneek dira euren estudioak Marina es-koletan eginda, titulua artu baiño lenago

lekua. Axe da Mikrokosmos onen burua ta garuntegia. Antxe dago Uri kosmopolita onen zuzendaritza guztia. Zubiari yageko lenen kapitana bera. Onen arrenge Lenengo Ofiziala deritxona, kapitanaren faltan ontziaren aginpide guztia artuko leukeana. Ga-nera beronen ardura da barruko tripulante guztiari euren obligaziñoa bete eragitea. Zu-biko beste ofizialen kontura dagoz lemea. kompara, gonioa, radar, sextanteak eta ontzia artez eroateko bearr diran tresna guz-tiak. Antxe jakiten dabe, gabaz zein egunez. Eguzkian ze ordu dan. Gabaz zein egunez jakiten dabe nun gagozan itxasoaren erdian zerua ta ura bearrerik ikusten ez danen.

zeinbat *milla* bide egin dogun, zeinbat daukaguzan egiteko, noiz elduko garean, eta metro bat ez orduerdi bat erratu barik eroaten gaitue arako edo onako portura.

Oneck lan guztiok ondo egiteko dagoz: Ofizialak lau, Ikasleak bi, Lemakeak sei, Kontramaixuak bi, Arotza bat, Bear aztunetarako ta garbitasunerako mariñelak ogei.

KAMAREA

Zeinbat esan dogu? Seireun eta zortzi-reun sartzen dirala MONTSERRAT-en. Askotan ez nazino batekoak. Eta diranean, ez provintzia bat koek. Sasoi guztietakoak, izaten dira, ta mailla guztietakoak. Guztiak dauke osasun onean eta zori onean joateko deretxu bardiña. Onetarako dago barruan Kamara deritxon departamentua. Kamarako gentearena da pasaje guztia pozik eroateko ardurea. Emen, kapitanaren agindupean, guztien buru egiten dana da Lenengo Sobrekargua. Beste bi Sobrekargu dagoz: bigarrena ta irugarrena. Lenengo maiordomu baten menpean bi, euren zuzendari direala, ainbat eta ainbat beargin eta servitzari. Bear dan baimenagaz sartu gaitzean eskatzean. Emen dago nagosi bat: lenengo koziñerua, batzutan ingeles izenagaz *Chief* esaten deutesna. Bere urrengo datoz bigarrena ta irugarrena, amalaurarte. Ez da mekaia euren zeregiña, ainbeste lagunentzat egunean iru jatordu atondutea, ta ganorabako platerakaz gogaitu ez eragitea.

Eskatzari yagokoz egitegia ta gozotegia bertarako bearginakaz.

Eta ontziaren parterrik sakonen eta barru-rengoan *gambuz* deritxon almazena, oke-la ta arrein, hortuari ta fruta edurretan, eta ardao ta edari, alkoholdun eta ainbako guztien gordelekua.

Edarien, kafearen eta baretako kargua daukenak bi dira printzipalak, baina oneek ganzek servietako dagozanak geiago dira.

Kamaran erroperia ez dogu aaztu bearko. Emen bearrrik geiena makiñaz egiten da. Bear-bere bai, onelako ontzi baten oietan, maiztan, lagunen soinetan egun batetik bestera ibiltan diran *milla* modutako *milla* zapiakaz. Erroperian besteen buru egiten dan bat dago. Bere agindupean bost edo sei langille. Lanik fintxuenetarako plantxadora bat.

Ule ta bizar kentzaille bat daukagu gizona koentzat. Pelukera bat emakumeentzat.

Egurrezko lanetarako arotz bat. Pasajeruen gela ta barruko garbitasunerako 34 kamareru, 29 euren laguntzaille. Azkenik iru *mutil* errekaduak eta egiteko.

OSASUN ARDUREA

Falta andia litzake onetariko leku baten osasunaren ardurarik eza. Bai tripulante ta bai pasajeruen osasuna zainduteko mediku bat daukagu, ta bere lagun praktikante bat, eta gaixo zain bi, bata gizonezkoa, bestea emakumea. Batzuk eta besteok ondo dakie euren lana egiten, eta euren tituluak ondo irakazita daukezala dirudi.

Euren egitekoa bear dan lez egiteko *Radio X* oder bat dago barruan, eta oi dalako kirofano bat, bear dan legez maia, panaila ta instrumental edo tresna guztiakaz orni-dua.

Eta azkenik, farmazia aipatuko dogu osasuna zainduteko ta gaixoa obarantz ekarteko bearren diran sendagaiakaz.

RADIO ESTAZIÑOA

Legorrean bearreko bada, naitanaiezkkoa da itxasoan. Zeinbat ondamendi ezerestu, zeinbat esturasun baretu, zeinbat samintasun gozotu ete ditu sortu edo asmau zanik ona! Emen daukaguna egunaren 24 orduetan zabalik daukagu, mundu guztirako, iragarpenak artu ta bialtzeko. Estaziñoak iru telegrafista daukoz, yaseko langilleak. Eta iruren artean, launeko txanda bitan zortzi ordu egiten dituez guardian, aparatuaren aurrean euren aurkian josita.

* * *

Itxasoan ezbear estu baten ontzia itxita bizia salvetako urten bear danean, kapitana, radiotelegrafista ta kapitana izango dira azkenengo salbau bearko direanak. Barruko telegrafista batek esaten eustan beinglatxu baten: —Azkenengo ordu larrian zer egia bear dan? Bota aidera sokorro eske azkenengo *S. O. S.* bat, beste inñondik ezin bada, ortixe, ventana biribil orretarik urten, salbabizi txalupara uger egin, jakin ezkerro, «Jesuskristo neure Jauna» erreza, (*nik neure artean: Jakin ezkerro!*) ta gero... itxaron...

Etxeko gora-beerak

Atzerrira joan barik be, etxean ditugu gauzak nun atondu. Ba-dira gurean be pregunta larri ta aldrebesak egiten dituen jende ugari. Nonork esan eban eskerak bat galtzen dau-neko erlijioak bi galtzen dituala; nik ez deustut ez baiezkorik ez ezezkorik esango, baiña kaleak-zear ikusi dodan zeozer bai: erlejiñoa galtzen doiala, otzitzen, gure eleizak lenago beteak orain utsak aurkitzen dirala. Gaurko erriak lengoak baiño pekatu geiago? Ori be ez dakit; munduan gizona danetik, beti izan da pekatua, noiz geiago noiz gitxiago, baiña gaurko munduaren pekatu berezia auxe da, Aita Santuak ondo esan eban lez: *pekatuaren konzientzia, pekatuaren zerikusia, gaildu dau gure munduak!* Ni ez natortxu gaur emen fedearen apolojetika egiten, ez; neuri egin deustezan pregunta batzueri erantzuten baiño.

—Zer ete da obeago semeak apaiz, praille edo moja joatea, ala etxean gelditzea?

—Ori ikusi egin bear!

—Zer obeago: semeak gizon ospetsu eta jakintsu eta agintari egitea ala ikazgin gelditzea? Zenbat eta gizon ospetsuago egin eta obeago?

—Jakiña, orixe!

—Eta lurgaiñean ete dago gero Jesukristoren apaiza baiño aundiagorik?

—Bai baiño...!

Zelan pentsauko ete dogu azkenengo egunean?

—Baiña apaiz txarrak be ba-dira...

—Zergaitik ez, ba? Gaiztoak be danetariakoak izan bear, onak lez.

—Eta apaiz txarrak ikusita be ondiño errespetoa izan bear deutsegue?

—Zure kamarako sagar umauen artean ustel batzuk aurkitzen badira, zer egiten dozu? Jakiña dago orixe! Ustelak kendu eta fiñak urre gorria lez gorde. Eta apaiz kontuan, zergaitik ez da orixe bera egin bear?...

Baiña kontuz be ibilli bear dogu, sarritan arrazoi barik epaitzen doguz gizonak. Begira zer jazo zan Bilbon ondiño aspaldi ez dala: Apaiz bat guttiz txarto ebillela-ta asi zan jendea. Eta ikusi be ikusi egin eban: arratsalde erdian neska gazte batekin bar batera joaten ei zan, gero beste leku txarragoetara ta... gauzak txarto. Obispo jaunak jakin ebanean alto emon bear yakola erabaki eban. Eta baita emon be. Polizi batzuk ekarri eutsezan bere aurrera apaiza ta neska. Zu nor zara? Eta apaiza,

guzurrezko apaiz agertu zan. Etzan apaiza. Edozein kaleko gizon bat zan.

—Zergaitik egin ete eban gizon arek alako gauza txarra?

—Ori esan. Jakindako gauza da ori be. Protestantek pagauta egiten ei eban, apaizeri izen ona kentzearren.

Gure artean apaiz gaiztoak aurkitzea ez da arritzekoa.

—Zenbat apaiz dagoz Euskalerrian?

—Ez dakit, baiña askotxo izan bear dabe.

—Eta zenbat gaizto tokauko lirake amabirik bat, Jesus'en Apostolu Santuen artean lez, Judas urtengo balitz?

—Ori be ez dakit baiña askotxo izan bear ko...

—Eta, ete dira gero, orrenbeste apaiz gaizto gure artean?

—Ez da errez, ain txarrak izatea beintzat.

—Eta arritzeko gauza ete da apaiz gaizto batzuk gure artean emakumeekin eta diruakin eta... alako olako gauzak egitea? Begira, gizon, danok gara gizonak, zu eta ni eta apaiza, danok gara argalak: Apostoluen artean Judas bat izan bazan, arritzekoa al da gaurko egunean be Judas batzuk izatea? Mingarria da benetan, ori bai, baiña ez arritzekoa. Eta apaiz bat gaiztoa dala, oker bideetatik dabilleta-ta, eurak be txarkeri asko egiten dituenak, ez uste izan Jaungoikoaren aurrean kastigu barrik geldituko direala; apaizak bere neurrian izango dau bere kastigua ta ez txikia, baiña baita besteak be. Apaiz edo abade batengan ez daigun ikusi gizon pekataria, Jesukristoren ordezkoa baiño. Asis'ko Prantziskok esaten eban: "Ez dot nik abadeengan pekatuik ikusi nai, ez; mundu onetan Jaungoikoaren Gorputz ta Odola bakarrik ikusten dodaz, eta misterio orrek apaizak bakarrik artzen dabez euren eskuetan; begiratu daiguzan ba Jaungoiko altsuaren ministro batzuk lez".

Kontuan euki, azken egunean danori eskatuko deuskuez kontuak bai apaizeri baiña baita apaizagaitik txarto berba egin dabenari be.

Ona emen Garizumarako meditaziño txiki bat. Izan gaitazan benetako kristiñauak. Ez kritikau besteengan ikusten dogun gaiztakeria, geure gaiztakeriak zuzendu baiño; eta besteen bat oker bidean ikusten badogu, atzetik berba egiten ibilli barik, karidaderik aundienaz eta bakarrean berari oartu. Zigur egon orrelan egiten badogu Jaunaren borondatea betetan dogula.

Soñeku merkiak

Zuk, adiskide, irakurriko zenduan, bear bada, ainbeste entzute daukan "El Quijote de la Mancha" erderazko eleberria, eta gogoratuko zara "Sancho Pantzak" Barataria ugarteko Jaurlaria (Governadorea) zalarik, epaitu bear izan eban "Kapelaen epaya" ("El Juicio de las caperuzas") eritxoha.

Gure Tomas jostunak ezaban iñoiz Cervantes' en libururik irakurri (¡baita zera be!) baña alan da guzti bere...

"Agertu yakon astelen baten bere jostundegira (dendara) baserritar ezagun bat eta oyal (pañu) zati anditxu bat erakutsiaz, esan eutsan:

—Katalandar saltzalle bateri eurosi neutsan, aurtemin, geure basetxe etartian, pañu auxe eta soñeko, traje oso bat, beronegaz egingo zeunskidaz?

Tomas'ek oyalari destañez, begiratu eta erantzun eutsan:

—Traje bat?... Bai bi bere.

—Bi bere bai?...

—Bai, gizona bai. Baita iru bere. (Zelakoak esan bear).

—Iru traje?... (Bizi nazan arteko jantsi apaña ba'yaukoat, orduan. Eta zortzi ogerleko ta erdi baño etxuat pañu guztia ordainduta, merketxuak, gañera).

Da... noizko nai dozak ba, jantsiok?

—Ba... Domusanturu eguna bere ganian doguta, ordukoxe-edo... bat beintzat.

—Ordo yagok. Aurreko astelenian etorri adi... eta gertu eukiko dozak.

Eta neurrik artzen da barriketan eta kopletau ibilli barik, atan geratu zirean.

Eldu zan, Urriko azkenengo astelena eta or arratsaldeko bostak inguruan (guztia esan bear da) polito jan-edan da, musturrian txokor erdi-amaitu bat ekarrela... agertu zan gure adiskidea.

—Arratsalde on, lagun zarra. Trajiok josita daukazuz, ala?

—Bai ara: or daukazak, aulki ganian, bear dan leges tolestu eta "plantxauta".

Aurreratu zan baserritarra ikus-miñez eta arri-tu lenengo, asarratu gero ta didar egin eban:

—Baña... zelako jantsiak josi daustazuz? ¡Txiki, ezerrezak...! Orreek neure zazpi urteko seme txikerrenak bere, eztaukaz ondo-ta? Zital madarikatu orrek telia alperrik galdu daztazu...!

—Zarata gitxi txotxo, zarata gitxi emen, eta ez larregi berotu, bestiok bere, zanetan, odola yaroaguk-eta... Zer uste uan bada, kirten andi orrek, iru kana pañugaz, kapa ta guztiko eskontza-jantsia eroango eukala...? Artuxak jantsiok, nai ba'dok... Bestela berton laga, bezeroai muestratzat erakusteko balioko yuet-eta...

Eta pozik joan akik, neure aloger ez ganerakorik eztuet eskatzen da..."

Eta mor-morka eta betillun aldendu zan, berekutan esaten ebala: "Dindiño berorrek eukiko yok zer-esan geyago... sapo, zital, txatxu orrek...!".



LOURDES' ko barriak

Igaro da Lourdes'ko Urte Santua. Baiña beti izaten yakuz atsegingarri estadistikatxoan batzuk. Orregaitik natortxu gaur, labor baiño ezpada be.

Bi alderdi ikusi bear yakoz Lourdes'ko Urteari: alde batetik gure begiak an ikusi dituen jai eder, jendetza ikusgarriak, agintari aundiak ta abar; beste aldetik, barriz, Ama Birjiñak an aurtentxu dituan graziak, an egiten diran mirariak, animak sentitzen daben onbidea. Bigarren alderdi au ez da lurreko begiak in ikustekoa ta Ama Birjiñak bakarrik jakingo dau bear bada. Emen gure begiak Lourdes'en aurtentxu dituen edergailluak bakarrik jarriko doguz.

* * *

Aurtentxu 1.044 tren espezial joan dira Lourdes'era erromesakin. (Igaz: 485 bakarrik. 1954'an Ama Birjiñaren Urtea izan arren: 684).

Tren orretan 700.000 erromes eroan dabez Lourdes'era; Frantzikoak: 450.000; beste alderdietakoak: 250.000. Orren gañera, eguneroko trenak: milloi ta erdi (1.500.000) erromes itxi dabez Lourdes'ko estaziñoan.

3.846 aeroplano eldu dira Lourdes'ko Ossun'era eta 123.835 erromes ekarri dabez.

Agostuaren amarrean bakarrik 48.000 automobil txiki eldu ziran. Uste danez, ia bi milloi lagun joan dira Lourdes'era aurtentxu bere automobilletan.

Ogei ta amar milla (30.000) automobil aundi joan dira eta 1.200.000 lagun eroan dabez. Automobil orretatik sei milla Españañoak izan dira.

Guztira, aurtentxu Lourdes'era joan izan diran erromesak 4.900.000, ia bost milloi izan dirala uste da.

* * *

2.961 mediku igaro dira mirariak izan diran edo ez ikusten dan tokitik.

49.500 gaixo sartu dira ur santuetan. 32 osatze miragarri ikasten asiak dagoz aur jaso direa-netatik.

25 kardenal eta 809 arzobispo ta obispo izan dira.

Iru milloi ta zortzireun Jaunartze izan dira (3.800.000). 153.000 meza emon dira santutegietan.

Egiz esan geinke mundu guztiak entzun izan dabela Ama Birjiñak urte onetan egin deuskun deia.



* Urtero-urtero negu aurpean, sekulako otsa ataraten dabe mundu guztian NOBEL sariak. Aurten bertan be zaparrada ugari ibilli dabe literaturako NOBEL saria dala-ta. Errusitar bateri emon, ba, Boris Pasternak dalako orreri! Eta au ez izan antza Krutxov jauntxo orren gustokoa-ta, lenengo baiezkua emon ondoren, gero ezezkoa emon eragin dautsoe Boris giza-joari. Olakorik orraitino...! Bein irabaziko eta berean ukatu.

* * *

* Munduko alde guztietan berba egin da aurtengo Gabonetan Aita Santuak egin dituan gauzak direala-ta. Gabon egunean bertan, goizetik, Ospital bateko umetxoari egin eutsen bisitatxoa: Oge batetik bestera ibilli zan, aita bat bere semetxoekin lez. —*Eta zuk zelan dozu izena?* preguntau ei eutson umetxo gaixo aretako batek, bere etxeko bat balitz lez. Eta, patxadan, baita itz onez erantzun be Aita Santuak umetxoari: —*Jaio nintzanean Angel izena jarri eusten; gero soldadutzan Jose deitzen eusten; orain barriz Juan. Baiña danak etxe batekoen izenak dira.* (Famili Santukoarenak, izan be: zerutik jatxi zan Aingerua, Jose aita-ordekoa eta Juan Bataiatzaillea).

Beste egun batean, barriz beste Ospital batera be joan zan: gizon eta emakume gaixoak ikustera eta berbalditxo batzuk eurakin egitera. An be berba ederrik esan ei eban. —*Aita Santua naiz eta zu ikustera etorri natzatzu,* esan ei eutson lenengo ikusi eban irurogeta amaika urteko Aurelio Massini'ri. Eta zaartxo gizajoak, guztiz biotz-bigunduta, eskuan munemon eta negar egiñaz auxe bakarrik erantzun al izan ei eban: —*Eskerririk asko!*

Urrengo kartzela bateko presoari egin eutsen bisita Aita Santuak. Preso aretako batek olan berba egin eban: —*Gaurkoa lako egunik ez dot neure bizitzan izan!* Aita onaren berbak onelako mirariak egiten ditu.

* * *

* Errusia ta Ipar-Amerika batasunerantz? Asko ez dala Amerika zear ibilli yaku Errusiko Mikoyan jauna, irribarre naiko zabalduz. Orain

Inglaterrako ministroa ei doa Errusirantz. Baiña ondiño miresgarriagoa da beste au, Krutxov jaunak esan dauanez, Eisenhower bera joango ei da Errusiara. Arrera ona egingo ei dautse. Batek ba-daki errusitar orren maskarak zer diñean. Egiz ete dabiz, gero?

* * *

* Len esan dogunez literaturako NOBEL saria Boris Pasternak'eri emon dautse.

Baiña ba-da beste sari bat be: bakearen NOBEL saria, eta au *Aita Pire* Dominikotarrari emon dautse. Ori irabazteko praille orrek zer egin dauan? Ez dau, ez, metrailla eta suzko gerraterik gelditu-erain, ori ez. Baiña azken gerrate aundiaren ostean nundik-nora bage gelditu ziran naigabetuerei poza ta etxe baten bero ta estalpea eskeiñi, ori bai egin dau. Eta ez da gitxi.

* * *

* *Egipto.* Nasser jaunak lorito bat ei dauko "Gora. Nasser" beti esaten deutsona.

* * *

* Japon'go Eleiza. Sarri izaten gara estadistikak jakin naian, ona bat Japon'go Eleizea dala-ta. Japongo kristauak 254.114 dira. 1957'tik onantza, 18.751 izan dira bataiatu direanak; zaarrak 9.952 eta 6.360 ume, eta eriotz orduan 2.439. Katekumenuak edo kristau izateko ikasten dagozanak, 17.675. Japon bertako apaizak 359, seminaristak, txiki ta aundi: 476. Kanpoko apaizak edo misioneruak: 1.208; bertako monjak: 3.047; eta aspiranteak: 1.942. Kanpotarrak 1.063. Esan daikegu, lan egin daitekela Japon' en be, eta lanik beifena bertako apaizak ugartzea dala. Otoi egin dagigun Japon'go Eleizeagaitik. Kristoren dotriñea sartu dedilla lenbaitlen Japon'go ainbeste semeengan. Izan be gaurko kristiñauak gitxi dira; Japon'ek 90.000.000'tik gorra bizi-lagun ditu eta kristauak 254.114 bakarrik. Otoi egin dagigun ba, Japon-darrak be gure anak dira-ta.

Euskaldun Gurasoak,
zeuen umeentzako kristiñau ikasbide
errez errez bat gura bañozue, eskatu

"KRISTIÑAU KATEZISMOA"

ANAITASUNA-ren euskera errezean
egiñiko liburutxu polita

Salgei:

Librería Verdes

Correo, 7

BILBAO